

HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKARATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

DIRU-LAGUNTZAK ELKARTEEN ETA MERKATARITZA ETA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEN HIZKUNTZA-PAISAIA EUSKARAZ EDO EUSKARAZ/GAZTELANIAZ JARTZEKO

1. artikulua.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da honako diru-laguntzak arautzea:

- Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa eta web orriak euskaraz edo euskaraz/gaztelaniaz jartzea.

- KALEAN BAI Planeko hitzarmen espezifikoa sinatu duten herriko entitateek irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa, web orriak euskaraz edo euskaraz/gaztelaniaz jartzea eta baita antolatzen dituzten jendaurreko ekimenetan esatari euskaldunen lanak laguntzea ere.

Diru-laguntza hauek oinarri hauetan xedatutakoaren arabera emango dira.

2. artikulua.- ESKATZAILEAK

Diru-laguntza hauek euren establezimendua Irunen duten merkatariek, ostalariek eta KALEAN BAI Planeko hitzarmen espezifikoa sinatu duten elkarteek edo klubek eska ditzakete, betiere lehenengo artikuluan aipatutako sustatze-jarduera horren helburu den esparruan sartzen badira eta oinarri hauetako zortzigarren artikuluan xedatutako baldintzak betetzen baldin badituzte.

3. artikulua.- ESKARIEN AURKEZPENA.

Diru-laguntza eskatzeko, Irungo Udalak emango duen eskari-orria bete beharko da eta Irungo Udaleko Hiritarra Atenditzeko Zerbitzuan (Juan de la Cruz, 2), edota 30/92 legearen (EJL-AJAL) 38.4 artikuluan aipatzen diren bulegoetan aurkeztuko da, oinarriak onartzen direnetik 2009ko abenduaren 7ra arteko epean. Epez kanpo aurkeztutakoak diruz-lagunduko dira baldin eta 2009ko abenduaren 31ra arteko epean egiten badira eta beti ere indarrean dagoen ekonomi ekitaldiko aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera.

Jarraian aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiria –NA– edo agiri baliokideren baten fotokopia (pasaporte, egoiliar-baimena) edo Identifikazio Fiskalerako Kode agiriaren –IFK– kopia.
- Publizitate enpresaren, enpresa errotulugilearen, edo enpresa toldogilearen faktura originala, edo web orriko lojamendu edo esatari euskaldunen lanagatikoko faktura originala (bestela, kopia konpultsatuak), eta ordainagiriak. Web orrien kasuan, zehaztu beharko da zein den domeinua.
- Elementua jarrita dagoela frogatzen duen argazkia; elementu bat baino gehiago denean, argazki bana aurkeztu behar da.

- d) Esatarien kasuan, aurkezpenaren gidioia.
- e) Kontu korrontearen zenbakia (20 digituak) eta titularra.

Eskaria ondo beteta ez badago edo eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaio interesatuari eskari-orria edo dokumentazioa osa dezan. Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta hala jakinaraziko zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. artikulua.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako eta herriko elkarteetako irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa eta web orriak euskaraz jartzeagatik kostuaren %50eko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza, gehienez ere, 300 eurokoa izango da.

Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako eta herriko elkarteetako irudi korporatiboa, kanpoko nahiz barruko errotulazioa eta web orriak euskaraz/gaztelaniaz jartzeagatik kostuaren %25eko diru-laguntza emango da. Diru-laguntza, gehienez ere, 150 eurokoa izango da.

Esatarien kasuan, diru-laguntza, gehienez ere, orduko 160 eurokoa izango da.

5. artikulua.- DIRUZ LAGUNTZEN DIREN GASTUAK

Diru-laguntzotan sartzten diren gastuak atal hauei dagozkionak dira:

a) Irudi korporatiboa

Kartazalak, menbretedun orriak, bisita txartelak, entitatearen identifikazio zigilua, albaranak eta fakturak euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz jartzeko diseinu lanak.

b) Errotulazioa

Kanpoko nahiz barruko errotulo nagusia, lan ordutegia edo baliokidea, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa.

c) Web orriak

Web orrien domeinuak.

d) Esatariak

Jendaurreko ekitaldietarako esatari euskaldunen lanak, **KALEAN BAI hitzarmen espezifikoa** sinatu duten elkarteek eskatuta.

6. artikulua.- AURREKONTUA

Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak emateko, gordetako kredituak ez dira 1.300 euro baino gehiago izango 2009 urterako. Kredituak 1 1010.481.455.13.01.2009 udal kontu-sailari egotziko zaizkio. Hala ere, zenbateko osoa aldatu daiteke, eskatutako diru-laguntza guztiak kontuan izanik, indarrean dagoen ekonomi ekitaldiko aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera. Lehenetsiko dira KALEAN BAI hitzarmen zehaztua sinatu duten elkarte edo klubak. Eskari horiekin kreditua agortuko balitz gainerakoak hurrengo diru-laguntza deialdiaren bizkar utziko dira horren kontrako adierazpena izan ezean.

7. artikulua.- DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA

Diru-laguntza epe bakarrean ordainduko da. Onuradunek oinarri hauen hirugarren artikuluan aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren hilabeteko epean ordainduko da. Eskaria ondo beteta ez badago edo eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa osatu gabe badago, eskari-orria edo dokumentazioa osatu ondoren hilabeteko epean ordainduko zaio.

8. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Diru-laguntza jaso ahal izateko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Ez du diru-laguntzarik jasoko gaizki idatzita edo oker gramatikarik duen errotulurik. Irungo Udalak doaneko itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskainiko die interesatuei testuen zuzentasuna bermatzeko. (Euskara Arloa. Tel: 943 505 272 e-mail: euskara@irun.org).
- b) Izen propio, toponimo, akronimo eta abizenak soilik adierazten dituzten errotuluek eta gainerako elementuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.
- c) Entitateak Irunen egon beharko du.
- d) Eskatzaileak ez du udalarekin zorrik izango.
- e) Irudi korporatiboa (esatarien kasuan izan ezik), errotulua edota web orria euskaraz edo euskaraz/gaztelaniaz jartzeko Udalaren diru-laguntza jaso duen pertsonak ezin izango du jaso, bost urteko epean, beste horrelako diru-laguntzarik elementu bererako.
- f) Estarien kasuan, erakundeak aurkezpenaren aurretik aurkeztuko du eskaria, eta bertan honako xehetasun hauek emango ditu: eguna, ordua, tokia eta aurkezpena zertan datzan.
- g) Eskatzaileak Udalaren kontrol eta konprobazio lanak erraztu beharko ditu.

Edozein alderdi, objektibo nahiz subjektibo, aldatuz gero, Udalari jakinaraziko zaio.

9. artikulua.- OINARRIAK EZ BETETZEA

Onuradunak oinarri hauetan xedaturiko baldintzetako edozein bete ezean, jasotako diru-kopurua itzuli beharko du eta hala jakinaraziko zaio.

10. artikulua.- EMAKIDA

Diru-laguntza hauek Alkateak emango ditu.

11. artikulua.- BATERAEZINTASUNA

Laguntza hauek bateraezinak dira Udal honetatik xede bererako jaso daitezkeen beste edozeinekin. Dena den, laguntza hauek baterakideak izango dira beste herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen bidez lortutako edozein laguntzarekin, jasotako laguntzen guztien eta sarrera propioen batuketak diru-laguntza honen xede den gastuaren %100 gainditu ezean. Gainditzen badu, gainditzen duen neurrian murriztuko da diru-laguntza hau.

12. artikulua.- AZKEN XEDAPENA

Oinarri hauek interpretatzeko orduan sortu litekeen edozein zalantza Euskara Ordezkariek erabakiko du. Halaber, behar den ahalmena ematen zaio oinarri hauek zuzen burutzeko behar beste ekintza eta oharpideak eman ditzan.

AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL PAISAJE LINGÜÍSTICO

AYUDAS PARA PONER EN EUSKERA O EUSKERA/CASTELLANO EL PAISAJE LINGÜÍSTICO DE ASOCIACIONES Y DE ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES Y HOSTELEROS

Artículo 1º.-OBJETO

Es objeto de esta convocatoria establecer las siguientes bases reguladoras para la subvención de:

-La imagen corporativa, la rotulación en euskera o euskera/castellano tanto interior y exterior de establecimientos, comerciales y hosteleros; así como páginas web.

-La imagen corporativa, la rotulación en euskera o euskera/castellano tanto interior y exterior, páginas web, así como trabajos de presentación en euskera en actos públicos de entidades que hayan firmado el convenio específico del Plan KALEAN BAI.

Dichas subvenciones se darán de acuerdo con lo regulado en estas bases.

Artículo 2º.- SOLICITANTES

Pueden solicitar estas subvenciones aquellos comerciantes y hosteleros que tengan su establecimiento en Irun así como los clubes y asociaciones que hayan firmado el convenio específico del Plan KALEAN BAI, siempre y cuando se ajusten al objetivo de esta convocatoria y cumplan los requisitos marcados en el artículo octavo de estas bases.

Artículo 3º. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

Las solicitudes se presentarán en el Servicio de Atención al Ciudadano (C/Juan de la Cruz, 2) de Irun o en las dependencias a que se refiere el artículo 38.4 de la Ley 30/92 (LRJ-PAC), en el plazo comprendido entre la fecha de aprobación de las bases y el 7 de diciembre de 2009. Se podrán subvencionar las presentadas fuera de plazo siempre que sean presentadas antes del 31 de diciembre y siempre y cuando el crédito consignado no supere lo previsto para el año 2009.

La documentación a presentar es la siguiente:

- a) Fotocopia del DNI o documento equivalente (pasaporte, permiso de residente), o fotocopia del CIF.
- b) Factura original de la empresa de publicidad, de rotulación o de toldos; o factura original del proveedor del dominio de la página web, o factura original del trabajo de presentador (en su defecto, copias compulsadas) y justificante del abono. En el caso de la página web se especificará cuál es el dominio.
- c) Fotografía del elemento colocado; en caso de ser más de un elemento, fotografía de cada uno de ellos.

- d) En el caso de los presentadores, el guión de la presentación.
- e) Número de cuenta corriente (20 dígitos) y titular de la misma.

En caso de no presentarse la solicitud debidamente cumplimentada o la totalidad de la documentación necesaria, o faltara documentación se notificará al solicitante, y se le concederá un plazo de diez días hábiles para que proceda a su subsanación. Si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición según lo previsto en el artículo 71.1. de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 4º. - CUANTIA DE LA SUBVENCIÓN

La subvención será del 50% del coste para poner en euskera la imagen corporativa, la rotulación tanto interior y exterior de establecimientos comerciales y hosteleros, y entidades, así como páginas web. Dicho importe no sobrepasará los 300 euros.

La subvención será del 25% del coste para poner en euskera/castellano la imagen corporativa, la rotulación tanto interior y exterior de establecimientos comerciales y hosteleros, y entidades, así como páginas web. Dicho importe no sobrepasará los 150 euros.

En el caso de los presentadores, se concederá una subvención como máximo de 160 euros la hora.

Artículo 5º - GASTOS SUBVENCIONABLES

Los gastos contemplados en estas subvenciones son los correspondientes a los siguientes conceptos:

a) Imagen corporativa

Trabajos de diseño para poner en euskera o euskera/castellano sobres, hojas con membrete, tarjetas de visita, sello de identificación de la entidad, albaranes y facturas.

b) Rotulación

Rótulo principal externo e interno del establecimiento, horario de trabajo o similar, toldos y rotulación de vehículos comerciales.

c) Páginas Web

Dominios de las páginas Web.

d) Presentadores

Trabajos de presentadores en euskera en actos públicos para aquellas asociaciones y clubes que hayan firmado el convenio específico del plan KALEAN BAI.

Artículo 6º. - PRESUPUESTO

Los créditos destinados a las subvenciones reguladas en estas bases no superarán los créditos previstos para el año 2009 que se establecen en 1.300 euros, imputables a la partida siguiente: 1 1010.481.455.13.01.2009. El importe global consignado podrá ser modificado, teniendo en cuenta el total de las subvenciones solicitadas. Tendrán prioridad aquellas asociaciones y clubes que hayan firmado el convenio específico del plan KALEAN BAI. En el caso de que con estas solicitudes el crédito consignado se agotara, las demás se dejarán a cuenta de la siguiente convocatoria salvo manifestación en contra.

Artículo 7º. - PAGO DE LA SUBVENCION

El pago de la subvención se realizará en un único pago, el cual se efectuará en el plazo de un mes una vez que el beneficiario presente la documentación requerida en el artículo tercero de estas bases. En caso de que se advirtiera que la solicitud no está debidamente cumplimentada o no se hubiera presentado la totalidad de la documentación solicitada, el pago se efectuará en un plazo de un mes una vez haya sido subsanado la falta.

Artículo 8º. - REQUISITOS PARA PODER SOLICITAR LA SUBVENCIÓN

Para poder optar a las subvenciones habrá que cumplir los siguientes requisitos:

- a) No recibirán subvención aquellos rótulos que estén mal escritos o tengan errores gramaticales. El Ayuntamiento ofrecerá a los interesados un servicio gratuito de asesoramiento y traducción para garantizar que los textos sean correctos. (Euskara Arloa. Tel: 943 505 272 e-mail: euskara@irun.org)
- b) No percibirán ayudas los rótulos y elementos que sólo indiquen nombres propios, topónimos o acrónimos.
- c) La entidad deberá estar en Irun.
- d) El solicitante no tendrá deudas con el ayuntamiento.
- e) La persona que reciba una subvención del Ayuntamiento para poner la imagen corporativa (excepto en el caso de presentadores), rótulos y páginas web en euskera o euskera/castellano no podrá recibir en el plazo de cinco años otra ayuda similar para el mismo elemento.
- f) En el caso de presentadores, la asociación deberá realizar una solicitud previa al acto en la que se especifiquen los siguientes datos: día, hora, lugar, y tema de la presentación.
- g) El solicitante deberá facilitar los controles y trabajos de comprobación efectuados por el Ayuntamiento.

En caso de cambiar cualquier aspecto, tanto subjetivo como objetivo, deberá ser notificado al Ayuntamiento.

Artículo 9. -INCUMPLIMIENTO DE LAS BASES

Si el beneficiario no cumpliera alguna de los requisitos de estas bases deberá devolver la ayuda recibida, y así se le notificará.

Artículo 10. -CONCESIÓN

Las subvenciones serán concedidas por el Alcalde.

Artículo 11. - INCOMPATIBILIDAD

Estas ayudas son incompatibles con cualquier otro tipo de ayudas que se puedan recibir desde este ayuntamiento para el mismo fin. En cualquier caso, estas ayudas son compatibles con cualquier otro tipo de ayudas de otras administraciones o de otras entidades privadas. La suma de la cuantía total de las ayudas recibidas y los ingresos propios no podrá superar el 100% del gasto objeto de la ayuda. Si lo superase, la ayuda se recalculará en función del porcentaje que exceda.

Artículo 12. - DISPOSICION FINAL

Cualquier duda relativa a la interpretación de las presentes Bases será resuelta por el Delegado de Euskera. Asimismo, se le faculta para llevar a cabo acciones y para dar las recomendaciones oportunas a fin de conseguir la correcta ejecución de las mismas.